



HILAREN 29rako BILERA DEIALDIA

Pasa den asteko asteartean, hilak 9, auzitegi medikuen eskariz, EAEko Justizia Administrazioan ordezkaritza dugun sindikatu guztiok idatzi bat erregistratu genuen zeinean eskatzen baikenuen bilera deialdi premiazkoa, langile horien gatazkaz aritu ahal izateko, **oraindik burutu gabe dago-eta**. Eskera atxikitzen dugu.

Ostegunean, arratsaldeko azken-azken orduan, Miren Gallastegui Sailburuordeak idazki “informala” bidali zigun sindikatuoi jakinarazten maiatzaren 29rako bilerara deitzen gintuela. Eta, hurrengo egunean, deialdi formala jaso genuen, baina zehaztu gabe ez ordurik, ezta non bilduko ginen ere. **Agerikoa da deialdia arrapaladan egina dela, seguruenera bilera eskaera berehala erantzun ezean, auzitegi medikuek izango zuten erreakzioari aurre egiteko asmoz**. Dena den, forentseen gaia ez da lehenbizi agertzen gaitzerrendan.

Kontua da, azken hauteskunde autonomikoetatik zazpi hilabete luze pasatu direla eta oraindik ez dugula ezagutzen Justizia Administrazioko Zuzendaria; eta, martxoaren 28an, Justizia Sailarekin izan dugun negoziazio mahaiko bilera bakarrean esandakotik ez dutela gauza bakar bat ere bete.

Izan ere, konpontzeke dauzkagun gai guztiei heltze aldera, lantalde batzuk osatzekotan geratu zen martxoko bilera hartan. Areago, horren inguruan aritzeko bost egunen buruan deituko zigula esan zuen sailburuordeak. Zain gaude oraindik. Orduz geroztik ez dugu inolako berrik jaso, ez deialdirik, ez proposamenik, ez zirriborrorik... mahai hartara eraman genituen gaiak direla-eta. Sailburuordea bakarrik mugitu da auzitegi medikuek euren borrokari berrekiten hasiak direla ikusita eta beldurrez nabarmen geratzeko bai Justizia Administrazioko langileen aurrean, bai iritzi publikoarenean.

Ekipo berri honek ez du aurrera egiten, zenbait aholkulari izendatu duten arren. LABen daukagun sentrazioa: martxora itzuli gara, lehendabiziz deitu gintuzten garaira. Zerotik hastea bezala da: ordukoan sailak proposatutako gai berberak; sindikatuoi gure aldarrikapenak berriro emateko eskatzea (garai hartan erakunde guztiek nork bere errebindikazio plataforma bidali zuten); lantaldetan aritzeko planteamendua berriro; lehengo portaera ona... bi hilabete geroago toki berean egoteko.

Aurreko Justizia Saileko Jon Arturo Uriarte zuzendaria ez dugu ahaztuko, ezta gorriak ikusarazi zigula ere, eta **pentsatzen genuen ekipo berri hau zentzudunagoa izango zela administrazio honekiko; edo behintzat koherente jokatuko zuela 2016an Eusko Legebiltzarrean PSE-EEek bozkatutakoarekin eta auzitegi medikuen parekidetasuna gauzatuko.**

Honaino esandako guztia dela-eta esperantza handirik ez zaigu geratzen hori horrela izango dela. Forentseen gatazkaren moduko afera batean jendaurrean erakutsi duten jarrera aintzat harturik ez badute hitza betetzen, zein aukera ote daukagu bestelako gaiak konponduko dituztela, esaterako lizentziak eta baimenak, erregistro zibila, lan-poltsak, euskara, jubilazioak...?

Edonola ere, LAB indartsu dago: ez dugu onartuko sailak geldirik segitzea, are gutxiago bigarren mailako langiletzat har gaitzatela.

Martxoko bilera zela-eta atera genuen informazio orria ere bidaltzen dugu.

2017-05-15